



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

ETako presoen omenezko pankartei buruz PSE-EE PSOEek aurkeztu duen MOZIOA.

Juan Carlos Abascal Candás Ermuko Udalean Talde Sozialistaren bozeramale denak, indarrean den Arautegiaren babesean ETako PRESOEN OMENEZKO PANKARTEN INGURUKO MOZIOA aurkezten du Udalbatzarrak eztabaidatu eta azter dezan

AZALPENAK

1. Joan den 2017 urtean ETako presoen omenezko hainbat pintada eta pankarta azaldu ziren Ermuan, herrian jai-ziren egunetan batez ere.

Intoleranteen ekintza hori behin eta berriz gertatzen ari da 2018 honetan ere.

2. Egun horietan, herrian jai-egun izan behar zirenetan, Ermuko hiritarrek eta kanpotik datozenek ETako presoen omenezko pankartak jasan behar izan zituzten begien aurrean, betiko intoleranteen jardueraren ondorioz

Pankarta horiek ETaren terrorismoaren biktimen duintasuna kaltetzeaz gain, kostu ekonomiko eta sozial handia suposatzen dute herriarentzat.

MOZIOA

1.- Ermuko Udalak gaitzetsi eta errefusatu egiten du espazio publikoak horrela erabiltzea.

2.- Ermuko Udalak ETaren orotariko biolentzia-motak jasan dituzten familia eta biktima guztiekiko bere elkartasuna adierazten du, eta bereziki herri honetan txalotuak izan diren erasotzaileen biktima izan diren haiekiko.

3.- Ermuko Udalbatzarrak gertaera horiek publikoki gaitzesteko eskatzen die talde horiei (EHBildu, Ernai eta abarri), bai eta jai-girokoak izan behar zuketena ekintza horiek beraien mesedetan erabili izana ere.